

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

3302

EBAZPENA, 2014ko uztailaren 3koa, Kanpo Harremanetarako zuzendariarena, kanpo-ekintzaren arloko profesionalak espezializatzeko beka bati uko egin zaiola argitara ematen duena eta beka eman gabe uzten duena.

Kanpo Harremanetarako zuzendariaren 2013ko azaroaren 28ko Ebazpenaren bidez, kanpo-ekintzaren arloko profesionalak espezializatzeko bekak esleitu ziren. Beka horiek uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuak arautzen ditu.

Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzarako beka Jon Iñaki Múgica Irusta jaunari esleitu zitzaion, baina uko egin dio bekari.

Uztailaren 26ko 171/2011 Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoari jarraituz, 2013ko azaroaren 28ko Ebazpenean ordezkio izendatutako pertsonari esleitu behar zitzaion, geratzen zen denborarako, eta horren arabera zegokiona ordainduta.

Beka ordezkioari esleitzeko behar ziren izapideak egin direlarik, espedientearen agertzen da Marta Lázaro Soler andreak uko egin diola ordezkio izateari.

Horiek horrela, kanpo-ekintzaren arloko profesionalak espezializatzeko beketatik Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzan betetzekoa zena eman gabe utzi beharra dago.

Horren ondorioz, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Jon Iñaki Múgica Irustak eta Marta Lázaro Solerrek Euskadiren Mexikoko Ordezkaritzan kanpo-ekintzaren arloko profesionalak espezializatzeko bekari uko egiteko aurkeztu dituzten idazkiak onartzea.

Bigarrena.— Beka eman gabe uztea.

Hirugarrena.— Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtoa jar diezaiokete interesdunek Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 3a.

Kanpo Harremanetarako zuzendaria,
LEYRE MADARIAGA GANGOITI.